

ZERU - ZALEAK

Bein arratiar batzuk Gorbeia mendira joan ei ziran, andik zerura igoteko asmoz. Orretarako erriko saski edo otzara guztiak batu ta ara eroan ebezan.


Erritarren artean mutil zoli ta bizkorrena begi jo eben lenengo ikustatea edo proba egiteko.

Otzara ta saki guztiak alkarren gañean ipiñita gero, mutil zoli ta bizkorren ori gorengo otzara ganera igo zan eta andik bere erritarrai esan eutsen:

Bat bear joat zerura igoteko, otzara bat.

Geiago ez egoan inguru guztietan, eta zeru-aldeko mutil bizkorrari otzara bat emoteko, zer egin eben ? Azpirengoa kendu...

Mutil bizkorra ez ei zan, bizirik beintzat, zerura eldu...



Begoñako Ama

Artagan mendi goian
ara or mirari,
artzain bati agertu
jako Andra Mari.
Bilbotik Begoñara
amaika malladi.
Zerura igoteko
bidea dirudi.

Zeru zale ba zara
orra or malladi:
amar aginduetan
uts barik ibilli.
Lenengoa da, barriz,
guztien oñarri;
au kenduten ba dozu
zara guztiz larri.

Uriguen tar Zenon C.P.